

**LIBURUA****Izenburua:** 'Mitxitxi marriau'.**Testua eta irudiak:** Begoña Durruti.**Orrialde kopurua:** 36 orrialde.**Argitaletxea:** Erein.**Begoña Durruti**

IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

«Istorioa gordina bada, bizitza bera bezain gordina da, ez gehiago»


Aspaldiko abestia eta istorioa berreskuratu ditu Begoña Durrutik *Mitxitxi marriau* ipuinean. Haurtxo txiki-ekin jostatzeko lelo bat da *mitxitxi marriau*, baina baita hori baino askoz gehiago ere. Izan ere, metaforaz jositako tradiziozko istorioa kontatzen du. Haurtzarora atzean utzi eta gáztarorari bide egin behar dion mutikoren bizipenak dakartza.

Pellori gertatutakoa kontatzen duzu ipuin honetan. Zer gertatzen zaio protagonistari?

Funtsean, Pellok haurtzarora bidean uzten duela eta gizon gázte xarmanta bilakatzen dela. Ipuinaren hasieran, Pello ume inozo bat baino ez da. Hala ere, hain umea ez dela iruditzen zait... Amari laguntzen dio, eta sutarako abar bila joaten da basora bakarrik, Poxpolin Txuri bere arrebatxoarekin. Basotik itzultzean etxeko atea itxita aurkitzen du. Gero, gero-ak...

Ipuina gordina da oso, ezta?

Ez naço ados. Ipuina azaletik irakurtzen bada, irudietan erreparatu gabe, gertakizun traketsa eta itxurara txarrekoa ikusiko duçu, deus gehiago ez. Albumean bi tresna erabili ditut istorioa kontatzeko: irudia eta testua. Biak ikusi behar dira. Irakurtzerakoan, itxuraz ama



errukigabea dena irudietan negarrez ageri den bakarra da. Aldiz, istorioan gehien sufritzen duena, gure Pello gáixoa, bere egoera larrienean irriz ageri da. Zer arraio gertatzen da, ba? Ipuina dela... Amak Pello puskatzen duelarik, adibidez, argi dago ez dela sufri-mendurik. Esanahi sinbolikoa du... «Hiltzen dena» Pelloren haurtzarora da, gáztarorari bidea utziz. Ama arduratzen da, eta laguntzen dio. Ama hezitzailea...

Niri kontakizuna bereziki ederra iruditzen zait, sinbologia aberatsekoa... Gordina bada, bizia bera bezain gordina da, ez gehiago. Txoriari habiatik partitzeko tenorea ailegatu zaio, eta hori mingarria izaten

da, batez ere gurasoentzat, edo gutxienez gazi-gózoa.

Nondik dator istorio hori?

Baneki... Interpretazio ezberdinak izaten ahal dira. Nik Jose Mari Satrústegiren ikerketa lana baliatu dut liburua sortzeko. Hark honela zioen: «Ipuin luze baten amaiaren hitzak dira. Egíptoko Osiris jainkoa bere arreba Isisek puskaka bildu, hil-zapian inguratu eta piztu zuen antzera, ahozko literaturan aurkitutako mito baten oihartzuna da. Haurra gáztarora aldatzen deneko adierazpen ederraren mezua darma haurtxoaren heriotzak». Argi dagoena da ipuina aspaldikoa dela, katua Euskal Herrira ailegatu

baino lehenagokoa... Pentsa!!!

Itxuraz, gárai batean *mitxitxi marriau* hitzak kontakizuna góxtzeko sartu ziren; ulertzekoa da... Gero ipuina ia galdu egin zen, eta leloa bakarrik gelditu zen. Bitxia!

'Mitxitxi marriau' leloa, hain justu, aski ezaguna da.

Hala da. Eta Euskal Herrian bere gáraian aunitz hedatua. Aita Donostiak 1950. urtearen inguruan desagertuta zegoen ipuinaren aztarnak bildu zituen Bidasoako herrietan, Irundik hasi eta Baztaneraino. Beranduxeago, Satrustegi Luzaide inguruan eta, gehien bat, Sakanan baratze berean aritu zen jorran. Haritik tiraka, Urdiainen bildu zuen ipuina -nire ustez, desagertzeaz zegoen altxorra...- Gure etxean, Arizkunen, betidanik hola ezagutu dut:

*Mitxitxi marriau
Katuek jain hau
Biher edo gaur
Kor, kor, kor, kor
Kor, kor, kor, kor*

Haur txiki-ekin jostatzeko ibiltzen duçu. Umea altzoan jarri, haren eskutxoak hartu eta hitz horien erritmoan ferekatzen duçu bere aurpegitxoa edo geurea. Herri batetik bertzera leloa aldatu eginen da. Hara hemen Oronoz-Mugairiko lagun batek bere etxean ezagutu duena:

*Mixi marriau
kattuek ñarrau
txitxi ta papa jan
guatzepian utzi
Muluxinek eraman
pa pa pa pa pa*

Beltzez, gorritz, grisez eta zuriz jantzi duzu ipuina. Zergatik kolore horiek?

Horiek izan dira ipuinak behar duen giroa sortzeko aukeratu ditudan koloreak. Zuria haurtzarora adierazteko erabili dut (inozoa, gárbia...), eta beltzez eta gorritz, berriz, heldutasuna margotu dut (saminagoa, ez hain gárbia...). Katuetan ez dut araua errespetatu, koloreak nolnahi erabili ditut. Beharbada despistatzeko, istorioan zehar *mitxitxi marriau* hitzek egin duten bezala...